

Goibek kale

Elgetako aldiria utarnila 53ak.

FERMIN IRIBAR
SAN ROKE 36-1



Ikastera Euskal Herritik urrun

Maderas Gallastegi, s. a.

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA)

Tel.: 94 6820568 eta Faxa: 94 6583061.

Udaletxeko Osasun eta Gizarte Zerbitzurako batzordeari.

Herritarroi, holaxe izanda kontua. STOP Hiesan inguruko jardunaldixak Elgetan. STOP Gaztetxiak, sortu zanezik, antolatutakuak. STOP Udaletxiak hau jakinda Deba Goieneko Hies Ekimenari deitu. STOP Honek, gurekin kontaktuan jartzeko erantzun. STOP Udaletxia gurekin kontaktuan jarri, danok batera antolatzeko. STOP

Udaletxia-Gaztetxia kontaktuan geuzela, Hies Ekimenakuak Gaztetxera etorri. STOP Urtero moduan dana antolatuta. STOP

Udaletxiak Hies jardunaldixak lotuta zeuzela esan. STOP Ez zaben iñungo arazoik jarri. STOP Eurek, jardunaldixan barri prentsara bialdu eta guk kartelak pegau. STOP Kartela irakurtzeko esan gontzan. STOP Ez zozkuen deitu gaizki sagola esanez. STOP Hartu emonak hor amaittu. STOP

Jardunaldixak pasau eta hila-betera, Udaletxekuak gurekin oso disgustautu zeuzanen zurrumurrua heldu jakun. Eren disgustua, gaizki ulertu bat izan zala bi aldiok onartu ostian, Goibekokalen kartia argitaratzeko lotsia euki dabenai:

1.- Lehenengo eta behin, argi eta garbi laga bihar dogu, Goibekokalek Hies Jardunaldixan inguruan jaso daban informaziño guztia geuk emondakua dala. Goibekokalei egindako kritikak ez dira justuak.

2.- Udaletxiak guk antolaten giñuan ekintza batian sudurra sartu dau eta dana nahastu dau. Hau da elkarlana? Guk dana egiñ eta zuek kartelian agertzia?

3.- Jardunaldixak pasau eta hillabetera jakin dogu Udaletxiak 50.000pta. emon dotsala Hies Ekimenari. Guk be antolatzailiak izanda, Hies Ekimenari dirua emon dotsagu. Zelan leike, antolatzailiak izanda guk ez eukitzia diruan barri? Zelan leike, iaz

be Udaletxiak Hies ekimenari dirua emotia eta guk honen barririk ez eukitzia? Zelan leike 50.000 pta horrek Hies ekimenari zuzenian emotia? Ez zeuan beste gastuik? Merienda, bideo proiektoria... egon diran beste gastuak zuek pagau bihar dozuez?

4.- Udaletxia ez da Gaztetxeko karteletan agertu, ez dalako ekintzian antolatzailia izan. Guk ez genkixen dirua emon zebala eta gaiñera dirua emotia ez da antolatzaille izatia. Udaletxiak jardunaldixetarako 50.000pta. emon zittuala jakin ezkerro, laguntzaille bezela agertuko zan.

5.- Kutzako diapositibetan esaterako, Udaletxiak lotzen dau dana eta inoiz ez da agertzen laguntzaille edo eta antolatzaille moduan.

6.- Udaletxiandako antolatzaille moduan agertzia inportantia da. Eta ez al da garrantzitsuaua Jardunaldixetan parte hartzia? Guk dakigula Gizarte Zerbitzuetako inor ez zan agertu ez erakusketara, ez hitzaldira, ez meriendara, ez inora. Ezta ingurukuak be sikiera.

7.- Elkarlana egiñ ezkerro kartelian agertu bihar ei da. Zergaittik ez gara agertu gu Gabonetan egin dan Denbora Libreko kartelian? Guk ez dogu lanik egiñhorrek ekintzok aurrera eruateko ala?

Oiñguan egin dozuena mendekua izan da. Mendekua aurrera eruatzen daban zinegotzi batek, zer egitten dau Udaletxian?

8.- Gurekin haserre zendezela enterau eta Udaletxiakin gaizki ulertua konpondu giñuanian, Goibekokalera kartia heldu da. Esaten ziñuten informau egiñ bihar dala, hor dago informaziñua.

Berriro be politta izan zeiken elkarlana nahastu egin dozue. Errezena bestiek gaizki egitten dabela esatia da, norberak egiñ bihar dittuanak ahaztuta.

Elgetako Gaztetxia

AENOR

ER

Empresa Registrada

ER-714/2/96

Estampaciones **Elgeta**

Estanpaketa orokorra,
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,
Serie handietan espezializatua.



Salbador, 32. Tel eta Faxe: 76 82 61



San Sebastian Kofradiako Tradizioa

Aintzina-aintzinako tradizio bati jarraituz? Gaur - urtarrilak 20 -

Elgeta hiriko Andre Mariaren Zeruratzea Elizan eta Angiozar Bailarako San Migel Elizan Sebastian Deunaren goratzarrerako biltzen gara.

1482an Gaztelako Isabel eta Aragoiko Fernando "Errege Katoliko" deituek hobetsi zuten San Sebastian Kofradiako Arautegia.

Garai hartan, Kofradikideak gaiztaginen ondoren bila ibili eta atxilotzera konprometitzen ziren, gero Justiziaren esku uzteko.

Arauk aldi-an-aldi eraberritu egin ziren (1553, 1596, 1903). Azken honetan meza nagusia entzutea arautzen da San Sebastian egunez Santuaren aldre aurrean Elgetan eta Andre Mariaren Garbikunde egunez Angiozarko parroikia-elizan. Ondoren, sakristegian, hildakoen alde eskaintzeko, hirurogei kofradikideek beste horrenbeste mezatarako dirua ematen zuten: berrogei meza Elgetan eskaintzeko eta hogeii Angiozarren.

Kofradikideen hiletakoan, gurutzeta, santuaren estandarte eta eskuko argizuziak eramaten ziren. Oraindik orain kontserbatzen dira santuaren aldre (XVII-XVIII) estandarte, argizuziak, kutxa (1766), prozesioko eskumakilak (1847)

Gaur egun, tradizio horretako hainbat arauk indarrean darraite, besteak beste:

Lehenbizi, gure arbasoek egin bezala, Jaunaren mezan aurrekoan alde erregutu.

Bigarren, gurasoengandik seme-alabetara edo beste ordezkoren batera, "aiton-semetzakoa" edo noblezasuna "egiaztatuz", aldaketarik eman den galdetu eta kofrade-zerrenda eguneratu.

Hirugarren, hilak direnen alde "Gure Aita" erreztatzen da eta haien alde eskaintzeko kide bakoitzak meza-dirua ematen du.

Azkenik, anaiarteko otordua egiten dute kofradikideek ohiko jatetxean.

Jose Luis Aperribai



Merkealdiak direla eta...

Duela egun batzuk gabonak pasa dira eta honekin batera dirua barra-barra gastatu dugu. Baina urtarrila heldu eta bat-batean...

Hona hemen merkealdiak!

Orain dela urte batzuk sortutako legea kontuan hartuz (urtean bi merkealdi baino ezin dira egon, bata neguan eta bestea udan) jendeak handik edo hemendik lortzen du dirua "gangaren" bat erosi ahal izateko.

Baina kontu honekin guztiakin ezuste bat baino gehiago hartzen dugu maiz. Hori dela eta kontsumitzaile elkarteek erosketak behar bezala egiteko honako hau gomendatzen dute.

-Aurreko prezioa eskatu: erositakoaren etiketan lehengo prezioa eta merkatu ondoren duena agertu behar ditu saltzaileak.

-Erosketa faktura eskatu: Erositakoa egoera onean ez dagoelako edo gustatzen ez zaigulako itzuli nahi dugunerako erosketaren agiri bakarra da faktura. Eskatu egin behar da.

-Kreditu txartelak: urtean zehar dreditu txartelak onartzen dituzten dendek, merkealdietan ere onartu egin behar dituzte.

-Garantiak: elektrogailuak edo gailu radiofonikoak merkealdietan erosiz gero, garantia eskatu. Merkeago erosi arren, saltzaileak derrigor eman behar du erositakoaren bermea.

-Kalitatea eskatu: Prezioa merketzeak ez du kalitatea gutxitzea esan nahi. Ez ahaztu merkealdietan etekin komertziala murriztu behar duela dendariak, baina ezin duela kalitate txarragoa eskaini.

-Merkealdiak eta saldoak bereiztu: saldotan, egoera onean ez dauden salgaiak merkatzen dira. Merkealdiak ez dira saldoak.

-Salaketak egin: kontsumitzaile gisa ditugun eskubideak betetzen ez badira, bidezkoa da salaketa jartzea.

Hau guztia kontuan hartuko duzelakoan... erosketa onak izan!

Maite Peñalver Castillo

kutxa *gizarte-ekintza obra social*



Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aldizkari honek Elgetako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honen argitaratzailea

GOJBEKOKALE

Argitaratzailea: Goibeko Kultur Elkatea. Salbador kalea 2. Elgeta 20690. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Oxel Erosarbe, Bittor Gallastegi eta Igor Arizmendiarieta. **Erredaktoreak:** Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Maite Mandaluniz eta Ainara Iribar. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Administrazioa:** Susana Jimenez eta Esti Retolatza. **Publizistak:** Jone Oianguren, Miren Atxotegi eta Izaro Arrazola. (Tel: 943789085). **Banaketa:** M. Elena Ezenaga, Ikastola. Tirada: 700 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati). **Copyright-a:** EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538. **E-mail:** goibeko@topagunea.com

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Koldo Zuazo: "Euskalkixa galtzen danian euskeria bera be galduko da"

Koldo Zuazok emondako berbaldixan berrogei lagun inguru batu ziran. EHUko irakasliak *Deba ibarreko eukeria* liburuan aurkezpena egin zeban lehenengo eta euskalkixen etorkizun gaiñian jardun zeban kultura batzordiak gonbidautu. Euskalkixen sailkapena egin daberen eibartarrak aukera garbixa egin dau euskalkixen alde, oiñ, elgetarron teillatuan dago harrixa.

- Zer irakurri geinke zure liburuan? Liburua hiru zatittan banatuta dago, lehenengo bixak euskalkixekin dagoz lotuta eta hirugarrenak euskalkixa zelan erabilli aztertzen dau.

- Liburuan euskalkixen etorkizun inguruan berba egitten dozu. Euskalkixak badauka etorkizunik? Euskalkixak galtzen diranian, pentsatzen dot euskeria bera be galduko dala. Ez dago hizkuntzarik dialektorik ez daukanik, eta euskeriak be izan dittu eta izango dittu beriak.

- Euskalkixak nun dauka etorkizuna? Idatzixan, ahozkuian...? Ahozkuian behintzat izan biharko leuke eta idatzixan be bai, era bardiñian ez bada be.

- Zein esparru dauka euskalkixak? Ahozkuia bai, baiña ez da bardin herri euskalduna izan edo herri erdalduna izatia. Elgeta moduko herri baten ahozko jarduna bertako euskeran izan

biharko litzake eta idatzizkuian, ni ez naiz iñor esateko zelan egin bihar dozuen. Hori zeuen erabakixa da.

- Hitzaldixan euskalki jatorra eta kultuauan arteko bereizketa egiñ dozu? Ez, jatorrak danak dira. Gauza bat da lagunartekua eta beste bat jasua.

- Euskalkixan konplejuek garratzi haudixa dake? Gurian behintzat bai. XVIII. mende ingurutik etorriko da kontua. Orduan hasi zan Gipuzkeria inportantzia hartzen eta euskera landua erabiltzen zebanak Gipuzkeraz egitten zeban: abadiiek, bertsolariek, esparru formaletan... Zelan gure herrixak be Gipuzkuian dagozen, euskera giputxaren eragiña ikusi izan da.

- Euskalkixa generaziñoz generaziño pasau da. Nun eta noiz eten da? Eten azken urtietan, Euskera batuaren gaiñian euki dogun gaizki uler-



Konplejuak galdu eta geure hizkeran egitteko gomen-dia emon zeban Koldo Zuazok euskera batuaren alde-kuia dala argi laga eta gero.

tuaren erruz. Pentsau dogu Euskera batua edozein momentutan erabiltzeko gauza bat dala eta ez da holan. Euskera batua erabilli biharko litzake Naparruara goiazienian edo Iparraldera goiazienian. Baiña Elgetarron artian edo Eibarkuekin berba egitteko ez. Euskera batua hizkuntza nazionala da.

- Udaletxiak zer lan dauka egitteko euskalkixan gainian? Interesantia

izango litzake, beste herri batzutan moduan, Elgetan be, herriko euskeria jasotzia, lantzia eta zabal-tzia, eta baita herriko ekintza ezbaridiñak bul-tzatzia.

- Liburuan aittatzen dozu, maixu-maistrek herriko euskalkixa jakin bihar leukiela Elgetan eskolak emoteko. Hau eskatu leike? Gure gurasuek uste izan dabe, eskolan erakutsittako euskeria eurek egitten dabena baiña hobia dala. Hor akats pedagogiko bat egon da. Eskolan, nahiz eta Euskera batua erakutsi, ez leukie laga bihar norberan euskeria galtzen.

- Elgeta zein beste euskalkidun herrikin lotuko ziñuke? Zergaittik? Elgetako euskeria Eibar, Ermua eta Plaentxiuaren antzekua da. Bergarakua eta Antzuolakuakin diferentzia batzuk badaukez, baiña horrek danok tipo batekuak dira.



40 lagun baino gehiagok gustora entzun zaben Koldok emondako hitzaldixa

Elgetako Udaletxea Udalbiltzan

Udalbiltza, lehen euskal erakunde nazionala izanda, Euskal Herriaren lurraldetasuna bultzatzeko sortu da. Erakunde hau Euskal Herriko Udalek eta Udaletxetako zinegotziek osotzen dute eta Udaletxeen arteko harremanak sakontzen laguntzeko asmoarekin sortu da, besteak beste.

Elgetako Udaletxean zinegotzi guztiek baiezkoa eman diote erakunde honen sorrerari.

Udalbiltza bost lantaldez osatuta dago: Euskal Herriaren naziotasuna garatuko duen taldea, Euskal Herriaren oinarritzko diagnostikoa egingo duen taldea, Euskal Herria nazio bat dela nazioartean isladatzeko lantaldea, Euskal Herriaren barne egituraketa instituzionala aztertu eta eztabaidatuko duen taldea eta erakundearen beraren barne antolamendu eta funtzionamenduz arduratuko den lan taldea. Elgetak ere baietza eman zion Udalbiltzari



Zinegotzi guztiak Udalbiltzaren alde.

Gaztetxia topera !

Mikel Urdangarinek 200 pertsona baino gehiago batu zituen Gaztetxian

Urte berria gogotsu hartu dute herriko gazteek. Urtarrilean Mikel Urdangarin eta Bide Ertzean taldekoak, Marsel Magoa... izan genituen bisitan. Otsailerako ere ekintza ugari antolatu dituzte.

- Otsailak 4an, barikua, arratsaldeko 19:30etan Alfredo Frias, Eguzki ekologi taldeko

bozeramaileak "Euskal Herritik Euskal Hirira" gaitzat izango duen hitzaldia eskainiko du liburutegian.

- 6an, "Todo sobre mi madre" Almodovarren pelikula ospetsuaren emanaldia izango da arratsaldeko 19:00etan.

- 11n, barikua, rock kontzertua izango da.

Bat Bitten eta Sal taldeek disko aurkezpena egingo baitute.

- 13an haurrentzako pelikula proiektatuko da arratsaldeko 17:00etan "Hantz, la hormiga atomica".

- 18an, barikua, Cuca eta Aitzol Mujikaren doinu lasaiak izango dira entzungai, tragotxo bat

hartu eta musika goxoa entzuteko aukera.

Martxoak 3rako, ihauteriak direla eta "Mal de Ojo" taldea lotua dute. Talde honen doinu rumborokin, adin guztietako jendearentzat festa antolatu dago Gaztetxean, sekula baino juerga giro hobe iragarri dute Gaztetxetik.

IÑAKI JATETXEA

Leku paregabea,
eguneko menua
Tel: 943 76 82 83

OSTATU JATETXEA

Gudarien Bide
Tel: 76 80 23
ELGETA


Eguneko menua 800 pzta.
Karta.

Auditoriumeko lanak hastekotan

Otsailan sartu orduko hasi dira Auditorium-a eta Mahalako eskailerak konpontzeko lanak. Udaletxeak arazo asko izan ditu, lanak egiteko hasierako subastan ez baitzuen enpresa batek ere parte hartu. Hasierako presupuestoa % 10 igo ondoren bi enpresa aurkeztu ziren. Gobernu Batzordeak SUKIA S.A.-ri eman dio lanak egiteko adjudika-

zioa. Guztira 44.726.737 pta.-tako kostua izango dute lanek. 32 milioi pta. auditorium-erako sarrerak, paretak, argi instalazioa, taula... egiteko izango dira. Mahalako eskailek 12 milioi pta.-tako gastua izango dute.

Lau hilabete barru eskailek eta auditorium-eko paretak, taula eta argi instalazioa behinik behin eginda egongo dira. Auditorium-erako aulki, pantaila, foko eta beste materiale osagarriez ezin izango dugu gozatu oraindik.



Auditorium-eko lanak hastekotan.

Egin zaitez bazkide!

Goibeko K.E.ko bazkide egiteko asmoa duena oraindik ere sasoiz dabil. Bazkide egiteko modurik zuzenena Liburutegira zuzentzea da. Dagoeneko 100tik gora dira bazkide egin direnak eta laister elkartekideekin bilera egingo da. Bilera honen berri karta bidez

emango zaie elkartekideei. Bertan, bileraren eguna eta gai zerrenda adieraziko dira. Goibeko K.E., hasiera baten, Goiena komunikazio zerbitzuan sartzeko sortu da, baina posible da elkarte kultural indartsua ere izatea. Nahiz eta hasierako helburua Eukara eta

Euskal Kultura bultzatzea izan, aurrerantzean erabaki guztiak bazkideen esku egongo dira.

Bazkide kanpaina, bileraren egunearte luzatzeko asmoa dago despistatuenei posibilitatea emateko.

Gurasoentzako hitzaldiak
Otsailak 3an, eguena, arratsaldeko 19:00etan gurasoentzako hitzaldia izango da Kultur Etxean. Hizlaria Iñaki Olaskoaga psikoloa izango da. Udaletxeak eta Guraso Elkartek antolatu dituen hitzaldiei amaiera emango zaie, honekin.

Margo erakusketa

Pello Alberdi elgetar margolariaren erakusketa dago Bergaran. Otsailaren 6a arte, Mazterreka kaleko Nahikari kafe-tabernan egongo dira Pelloren margoak ikusteko moduan.

Parrokiako begirale taldea

Elgetako parrokiako gazteek begirale talde bat jarri dute martxan. 6 urte eta 15 urte arteko hurrekin jardungo dute parrokiako begiraleok. Begirale hauen helburua elkarlana bultzatzea izango da. Hamabostean behin Domingo Iturbe Patronatoaren lokaletan elkartuko dira jokuak, eskulana... aurrera eramateko. Parrokiako gazteek, aurrera eramango dituzten ekintzetan parte hartzeko, liburutegian eman behar da izena otsailak 4a baino lehen.

Otsailak 11n EH-k antolatutako hitzaldia

"Euskal demokrazia osatzeko oinarri eta garatze bideak" gai duen hitzaldia izango da otsailak 11n, arratsaldeko 20:30etan liburutegian. Beraien duten proposamena herri mugimendu, sindikatu eta sektore politiko guztiekin eztabaidatzea da EH-koen asmoa.

OSTETREN
GORIA

Eguneko menua, enpresa bazkariak, ezkontzak, jaunartzeak, etab.

Arkitekto Kapelastegi, z/g.

48230 Elorrio / Bizkaia Tel: 94 623 17 95

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g.

Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA

San Bixente jaiak Parteittin

Negu bihotzeko jai politagorik ez da egongo zeguruenik inguruotan eta urtetik urtera jende gehiagorik hurbiltzeak ondo sustertu dela ere ezagun da.

Jendea ugari egon zen bai mezetan eta ondorengo bedeinkazioan eta baita salda eta txakolin festan eta erromerian. Angiozarko jendeaz gain inguruko herrietakoak nabarmentzen ziren, batez ere bergararrak.

Urtero bezala haize fina eta hotz egin arren giroa bero eta goxoa izan genuen.

Meza ostean elizpetik zelai, baso eta bertaratutakoak bedeinkatu gintuen abadeak eta zuzenean Zabarteko atarira joan

zen jende guztia salda beroa, txorixoa eta Kataideko txakolina edateko.

Getariak eta inguruak bereganatu badu ere txakolinaren fama eta jaiak, San Antonetik gutxira egiten den Parteittiko jai honek urte gutxi barru keispea egingo ote diola esaten zuenik ere bazegoen, izan ere Kataide txakolinak ez dauka inoren enbidiarik eta bere burua Debagoienero arduatzen aurkezteko ez luke arazorik izan behar, jatorrizko izendapena ez bada ere.

Aurten ez direnak joan datorren urterako apuntatu ajeñdan. Ez da inor damutuko!



Ura, gatza eta elautza: bedeinkaziorako derrigorrezkoak dira, baiña baita Zabarteko erronomia ere.



Mainddako urak baserri gehiagotara zabaldu dira

Hasiera baten Mainddako baserri multzora urak eroateko plana egin bazen ere auzoko beste baserrietara eroateko eskatera egin zen eta, horrela, Iruain, Suasqueta eta Handiketxera ere sarea haunditzea erabaki zen, aitatutako baserriok eskas zamar ibiltzen zirela eta urarekin.

Hori horrela, lanok burutu dira eta uraz gozatzeko aukera izango dute laster batean.

Goitibehera lasterketa aurten ere bai

Angiozarko San Migel jaietan ospatu zen Goitibehera lasterketaren arrakasta ikusirik eta bertan egin zen antolaketa lanak kontutan izanik, egin berri den Euskal Herriko elkartearen bileran puntuazio onena lortu zuen Angiozarko frogak eta aurten ere berriz frogatuko antolatze-ko aukera. Euskal Herri mailan egingo den txapelketako azken frogak izango da Angiozarko eta dudarik barik ikusmin handiagoa izango duelakoan daude antolatzaileak.

Elizan txukuntze lanak

Azken aste hauetan parrokiaren txukuntze lanak burutzen dihardute. Hasi ateari garbitzeki hasi badira ere, korua kapila eta sakristia ere zepilatu eta barnizatuko dituzte. Denboraz elizan zurez dauden alderdi guztiak zepilatu eta barnizatuko asmoa dago, oraingo argizarizko sistema ordezkatzuz.

Arazorik larriena koruan agertu da, izan ere zehanak janda dago lur zoru gehiena eta izurrite hori kentzea izango da lehenengo lana. Horretarako lur zoru guztiko oholak berriztu beharko liriteke eta ikututa dauden beste egurrak (organukoa edo eliza zapaia esate baterako) desinfestatu behar dira eta, horretarako beste espezialista batzuren parte hartzea beharko da.

Dena den alderdi garrantzitsuenak bi astean eginda egongo dira eta orduan eman beharko dira benetako iriztiak.

GRUPO **IFA** Produkturik onenak, prezio onenean

Tel: 76 80 98.

ALDI

Bandoni Bolinaga

METALAK

FS7 18

Tel - Fax 76 80 64 ELGETA

Uste dozu biharrezkuak izan dirala hartu diran neurrixak 2000.urteko efektua dala eta? Noiz hasten da zuretako millurteko barrixa?



Ainara Totorikauena (22 urte) Bihargiña

Uste dot gauza askotan dirua alperrik gastau debela, baiña egixa da zeozer be preparau bihar zala. Hala eta be, hau danau gehixegi izan da. Uste dot datorren urtian hasten dala millurtekua.

Ez dot uste sentiduik dakanik egin deben ezerk. Neretako egin debena txorrada bat izan da. Ez dakit noiz hasten dan millurtekua.

Mikel Juaristi (14 urte) Jkaskia



Kontxi Gervotxategi (50 urte) Bihargiña

Larregikua pentsau jata egin dittuen gastu danak. Nik ez dot igarri ezer eta uste dot Espaiña guztian be ez debela ezer igarri. Duda askokin egon naiz, baiña azkenian konbentzituta nago 2001. urtian hasten dala millurtekua.



Felix Sarasketa (46 urte) Bihargiña

Neretako hau danau montaje bat izan da, ordenadorien gainian dabillen jentiak diru dexente irabazteko. Ez dakit noiz hasten dan millurtekua.

Neretako gehixegi izan da ze betikua pasau da, dirua faten da, baiña guk ez dogu ezer onik igartzen. Neretzako oiñ, aurten, hasi da millurtekua.


Elisabet Gallastegi (34 urte) Bihargiña



Uste dot, azken batian, jentian gauzak izan dirala denboriak erakutsi dau eta ez dala pasau ezer. Ez dakit biharrezkuak izan diran.

Historixia aintzat hartuta millurtekua hurrengo urtian hasiko da.

Francisco Llamas (49 urte) Bihargiña



Kartetan jokatzeko giro egokia

Kopa bat

Tel: 768093

P a t x i **T a b e r n a**

Aintzane denda

zugandik gertu behar duzun beste

Domingo Iturbe 4-behea Tel: 943 768297

ARIES: Beti gauza bardinak egittiakin aspertuta? Hire esku jaok/jaon hori konpontzia eta badakik/badakiñ ez begiratu bixarkuai eta eutsi egunerokuai.

TAURUS: Gauzak aldatu egitten dittuk/dittun zorionez edo zoritxarrez, baiña hik ez dok/don gura hire errealdadia ezagutzia. Ilusiñuetatik urten bihar dok/don.

GEMINI: Zapatu gabeko tabernatan dantzan egittia nahi dozula? Bikotiakin ala barik? Egixa dok/don danok bihar dogula batenbat onduan eta horretarako arriskatu egin bihar.

CANCER: Maitte dozunan faltia somatu dok/don hire bihotzian, baiña oroitzapenak ez habe/hone haren ondora eruaten. Ezer ez dok/don betirako, danak jakak/jakan amaieria.

LEO: Hire maittia ez dala agertzen? badakik/badakiñ hik gutxien pentsautako lekuan eta orduan egon dok/don hire zaiñ. Ez larragi itxoiñ!!

VIRGO: Urte barri bat hasi dok/don eta badakik/badakiñ nun dagon itxaropenak zabaldu-tako bidia. Hire aurpegiko barria sortzen daben bidiai heldu.

LIBRA: Gerri bueltiai begiratu eta gero buruai heldu eta aieneka hastia bat dok/don hiretzako. Jandakuak janda jaozak/jaonaz eta oiñ deportia egitten hasi bihar.

ESCORPIUS: Zeiñek esan juan/jonan bide okerretik fatia ez zala dibertigarrixaua markau-takotik fatia baiño? Hik honen gaiñian bada-kik/badakin zeozer ezta? Jarraitu heuriai.

SAGITARIUS: Olentzerok bere sasoian ekarri ez duana/donana oiñ iñok ekartzeko esperan-tziakin habill? Badaezpada itxoiñik/itxiñin jarritta.

CAPRICORNIUS: Egun santu dana telefonotik berba egitten pasatzen dok/don, argi jaok/jaon hik ez duala/donala fakturaik pagatzen. Laster poltsi-koko telefonua bestien kontura erosiko dok/don.

AQUARIUS: Gero eta bihar gutxiau egiñ orduan eta alperrau hago, baiña badakik / badakin: loteria tokau artian biharria jarraitu biharko dok/don.

PISCIS: Traba ugari dagozela pentsatzen dok/don, baiña poliki-poliki hire paretik ken-tzen hasiko dittuk/dittun eta eguzkixan argitta-suna errezausartuko dok/don hire ibilbidietan.

Valentin Villa Gallastegi (62 urte)

Zenbat urte enpresiakin? 10 urte.

Noiz lagako dozun badaki-zu? Jubilatu arte segidu biharko dogu.

Zenbat langille dare Estampaciones Elgetan? 15 langille.

Zer da hemen enpresan gehixen egitten dana? Txapen estanpaziñua eta tubuen mekanizaziñua.

Jai dakazun egunetan zer egitten dozu? Pare bat txikito hartu.

galdu be gal-tzen dittugu. **Badakazu bete bariko ame-tsik? Bai, beste enpresia mon-tatzia.**

Pozik egoteko motiboik badakazu? Bai, lanian gau-zak nahikua ondo urtetzen doiaz eta osasun aldetik be ezin naiz keja. **1999ko barririk garrantzi-tsuena? Politika munduan, neretako lizarrako akordiu-aktua eta tregua izan dira gauzaik garrantzitsuenak.** **Bizkaitarra zara ala honez-kero gipuzkuarra? Izatez biz-kaitarra, baiña hainbeste urte eta gero gipuzkuarra sentitzen naiz.**

Zenbat urte geratzen jakoz Estampaciones Elgetai? Espero dot urte bete inguru.

35 ordu ala 40 orduen alde? Ni, 50 orduen alde nago. Ze beste batek 35 ordukin produzitzen badau, nerekin sekula ezingo dau konpe-tidu.

Badakazu angulak jateko ohitturaik? Bai.

Zeiñi egingo zon-tzake holako en-tre-bista bat? Elgetan nere lagunen bati eta bestela asko lagundu bihar doskuela esa-ten daben agintari-xei, azkenian hola-ko laguntzaik ez dou sekula ikusten eta.



Zenbat trofeo dakazuz zure ofizinan? 9 kopa edo.

Zelan ikusten dozu aurten "Estampaciones" saskibalo tal-dia? Irakurtzen dotenez, batzuk irabazi arren beste batzuk

Horroroskopua

Berezitasuna.
Buztana.
Pintxo gozoak
otartekoak.

BOLATOKI
TABERNA - JATETXEA

tel: 768284

Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatuak

Sukaldeak

Etxaurreak

Komunak

Otzango Behetako Baserria. Tel: 860156

Goibakokale 53.zk


Lehiaketa

Bateronbatek asmau dau behintzat. Elorrixorako bidian irulitta zeguan kamioia zan. Hoixe beroi edo antzerako zeozer erantzun dau Olatz Txintxurretak be. Berak bialdu dosku kartatxo bat posta elektronikotik eta hori dala eta eruango dittu pare bat kamiseta.

Kamiseton billa etortzia besteik ez daka.

Bestiontzako badao aukeria ondiokan. Zertan diharduan erantzun ezkeru zuriak dira kamisetak.

Gure zuzenbidia badakizu. Internetetik, e-posta erabilitta bialtzia gura badozu, ba, hauxe da helbidia: goibeko@topagunea.com
Gurekiñ hartu-emonian ifintzeko bidiak badakazuez. Oin zuen txandia da eta ia kamisetok etxeratzen dittuzuen!!!!!!!!!!!!



Jgorren Komikia

**KA BI MILA EFEKTUAZER DENAZALTZEN
DUGUN, OSO SINPLEA DA:**

1999 + 7999 + 7999 + 2000

Ama, atzerrira noia!

Egun lana aurkitzea zein zaila den denon jakinekkoa da, eta zer esanik ez gustoko dugun lanbidea! Horregatik, beste hainbat arrazoiren artean, gazte askok gaur egungo eskaerei aurre egiteko nahian atzerrira joatea erabakitzen du, prestakuntza horren beste gehigarri bat bailitzan. Elgetan ere baditugu aukera honen alde apustu egin duten zenbait lagun. Goibekokalek horietako hirurekin egoteko aukera izan du, hala nola, Aritz Arangurenekin, Unai Garrorekin eta Onditz Villarekin. Lehenengo biak Erresuma Baturako bidea hartu dute eta Onditzek berriz Finlandian pasatuko ditu datozen sei hilabeteak.

Ale hau argitaratu orduko hiru gazte hauek Elgetatik urrun egongo dira. Unai Eskoziako Edimburgon izango da radar sistemei buruz egiten diharduen tesiarekin gora eta behera. Urrian joan zen lehenengoz eta gabonak bertan igaro ondoren Edimburgorako bidea hartu du berriro. "Procesamiento digital de señales para sistemas de radar" gaiñeko tesia egiten dihardut. Hiru urteko tesia da. Hiru urte hauetan, urte erdi Eskozian eta beste horrenbeste hemen pasatuko ditut, Mondragon Unibertsitatean". Aritz oster, Empresarialeko ikasketak amaitu ostean, Ingleterran ari da jo eta ke ordenagailu aurrean masterra aurrera atera nahian, "MBA (Master in Bussines Administration) jikasten dihardut. Irailean hasi nintzen eta dena ondo joanez gero urrirarte bertan egongo naiz". Ingleterrarako hiririk handienetakoko baten aurkitzen da, Stoke-on-Trenten. "Hiri handia da. 300.000 biztanle inguru ditu. Inongo zalantzarik gabe Ingleterrarako hiririk zatarrena da".



Urruti egon arren Elgeta gogoan dute Unai, Aritzek eta Onditzek.

Erabaki hau hartzeko arrazoiak

Horrelako erabaki bat hartzeko arrazoi bat baino gehiago aurkitzen ditugu. Beti ere oso aberasgarria delako beste

kultura batzuk ezagutzea. Nola pentsatzen duten ezagutu, ohiturak, arazak... faktore guzti hauek gain beste hainbat ere oso kontutan hartu dituzte 23 urteko gazte hauek. Unai, esaterako, beste hauek gaineratu zizki-

gun: "Alde batetik aztertu beharreko gaia oso interesgarria iruditu zitzaidan eta beka izanda aukera ezinobea zela pentsatu nuen. Bestalde, inglesa lantzeko aukera beti da interesgarria". Aritzek lanetik jaso zuen Maste-

rra egitera joateko proposamena." Grupo Recideko agintariek aukera hau proposatu zidaten. Unibertsitateko beka baten bitartez Master hau egiteko aukera zegoenez aprobetxatu eta harantz joatea erabaki nuen".

Onditz, Finlandiako paraje hotzetan ibiliko den Onditz, Erasmusetik joan zaigu Turku deritzon herrira Turismo-ko ikasketak bukatzearen. "Datozen hilabeteetan Finlandiako Turku herrian ibiliko naiz, ekainerarte hain zuzen. Denbora honetan ikasketak amaitzeko aukera izango dut eta bide batez ingelese ere ikasiko dut. Gainera, gaur egun, garrantzia handia ematen zaio ikasketak atzerrian amaitzeari."

Ez zuten denbora asko behar izan lagun berriak aurkitzeko, baina lehenengo egunak nahiko gogorak izan zirerala ere onartu digute. "Hasieran nahiko gogorra egin zitzaidan. Batez ere jaterako orduan (ogia eta ura asko botatzen ditu faltan). Hala ere, hilabeteak aurrera joan ahala ohitu egiten zara. Orain oso gustora aurkitzen naiz" diozku Aritzek.

Bizi berri bat

Gauza asko aldatu dira neska mutil hauen artean etxetik kanpo bizi direnetik. Orain independenteagoak direla aitortu digu-

te, horrek dituen gauza on eta txarrekin. Onditz eta Aritz ikasle-egoitza batean daude. Aritzek egoitza horretako berri ematen digu: "Etxeko lan guztiak geuk egiten ditugu. Nahiz eta arauak oso zorrotzak izan ez dira errespetatzen eta horrek arazoak sortarazi ditu". Unai berriz, pisu batean bizi da, "eskoziar birekin bizi naiz. Pertsonalki oso gustora aurkitu naiz hasieratik. Eskoziarrak oso jatorrak dira eta jurgatxoak ere ez dira falta izan. Ikasketak, aldiz, nahiko gogorak egin zitzaizkidan hasiera batean". Aritzi uste baino errazagoa iruditu zaio Masterra. "Ikasketa



Onditzen karta bat jasoberri digu e-postaren bidez eta oso gustora dagoela esan digu. Bejon deiola!




Berehala egin ditu lagunak Unai Edimburgon.

maila altuagoa aurkitzea espero nuen. Nire arazorik nabarmenena hizkuntza izan da. Materia aldetik ez da oso gogorra. Lanak egiteari garrantzia handia ematen zaio".

Unairen eta Aritzen esanak entzuten genituen bitartean Finlandian aurkitu behar zuenaren gainean zerbait bazekien galdetu genion, "Gauza ugari kontatu dizkizate. Oraingoz ez dut gauza on askorik entzun. Eguzkia goi-


HAIZEA

TABERNA



giro atsegina
lagunartean
egoteko.

Tel: 768256



Jesús Mari Montiel
**ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK**

Artetale 3.

Mo: 970773950 Eibar Tel: 700719

**KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELETAN**

zeko hamarretan ateratzen omen da eta arratsaldeko hiruretan sartu. Izugarritzko beherakada jasaten omen da. Bestalde, ni noan egoitzan 3.500 lagun biziko gara. Herri txiki bat bezala omen da eta horrek mundu osoko jendea ezagutzeko aukera emango digu. Horretaz gain, Errusia, Suedia etab. oso gertu daude eta leku horiek ezagutzeko aukerak zirrara sortzen dit".

Etorkizunari begira, etxera bueltatzea gustatuko litzaien arren ez dute alde batera uzten han geratzea Aritzek aitortu digun bezala: "Ikusi egin behar. Han geratzea oso aukera ona da, dena den, aukeran, nahiago dut etxera buel-

tatu. Hango bizi maila hemengoa baino askoz altuagoa da". Onditzek bueltatuko dela ziurtatu digu.

Kanpoan darmaten denboran denetarik gertatu zaie. Unairi eta lagun bati lapurtzen saiatu ziren. "Arratsaldeko bederatziak inguruan izan zen. Kaletik gindoa-zela pertsona batzuk generaman diru guztia emateko eskatu ziguten. Guk ez generamala dirurik esan genion behin eta berriz. Azkenean, betaurrekoak puskatu ondoren alde egin zuten, hori bai, dirurik gabe". Aritzek ere badu bitxikeriarik kontatzeko egoitzan gertatutakoak: "Madrildar lagun talde bat, dirudunak denak, txarrenak denak, txarrenak dira beti edaten ari dira eta... Behin, Singapurreko neska batek sukaldeko janari dena jaten zutela ikusirik, esnetan amoniakoa, janaritan diuretikoak eta garagardoa beharrean pixa jarri zituen. Gau hartan dena jan eta edan zuten gazte hauek. Hurrengo eguna komunean pasatu zuten".

Bitxikeriak aparte, duda-mudatan dagoen jendeari ez beldurtzeko eta animatzeko



Azkenean, mundua txikia da! Hirurak geratuko dira elkarrengandik gertu, mapan behintzat.

gomendioa luzatzen die Unai eta Aritzek, "Joateko esango genieke. Ez dudatzeko. Gauza berri

asko ezagutzeko aukera izango dutela. Oso interesgarria da".



Finlandiako hotzari aurre egiteko jantzi ugari eramán ditu Onditzek.



Herralde, klase eta kolore guztietako lagunak aurkitu ditu Aitzek Ingalaterran.

EROSLE

M. Asun Agirre

Salbador 26. Tel: 768190

Tel: 76 81 31

M^a Jesus Arrazola

VIVO

Janari denda

Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 768050-789031 Faxa: 768243

TAPEM, S.A.

Trokelak eta estanzazioa
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK

Aitor Elkoro iaz lortutako binakako txapela berreskuratzen saiatuko da Etxanizekin batera

Bi enpresek, iaz ez bezala, finalerdietatik aurrera batera jokatuko dute

Aitor Elkorok Etxaniz Bergararrekin jokatuko du aurtengo txapelketa. Asier Olaizolarekin Aspeko txapelduna iaz, ezingo du berarekin jokatu enpresaren erabakiz. Hala ere bere betiko lagun denarekin jokatuko du.

- Zelan ikusten duzu zeure burua aurtengo txapelketan?

Bueno, hasieran ondo. Eskuetatik ondo nago eta fisikoki ere bai. Iaz, eskuetatik oso justu, errenka, ibili nintzen. Tako asko jartzen nituen eskuetan. Aurten berriz, txapelketaren atarian behintzat eskuetatik ondo nabil; gero, ikusi beharko.

- Zein bikote ikusten duzu txapelkeldun?

Bikote parekatuak daudela uste dut. Titin-Lasak bikote sendoa osatzen dute, agian hauek dira gure taldean faborito nagusiak. Gero bikote politak ere badaude Goñi-Zezeaga, gurea ere nahiko konpentsatua dago... Hasieratik Aimar Olaizola-Auxkin bikoteak zereginik ez dutela esaten duten arren, hauek ziur sustoren bat emango

dutela.

- Bidezkoa irudutzen al zaizu Asier Olaizola kanpoan uztea?

Pena izan da. Nik uste Asierrek maila honetan jokatzekeo kategoria baduela, izan ere, iazko txapelduna baita. Ez dauka ezer erakutsi beharrik. Zazpi aurrelari ziren hor eta bat utzi behar zen eta berari tokatu zaio. Gainera beste enpresa bategatik fitxatu izanak ere agian eragina izan zezakeen.

- Nola ikusten duzu Olaizolarrekin gertatzen ari dena?

Errua ez da beraiena ez Asperena. Aspek enpresa bezala jarrera egokiena hartu du. Joango zaion pilotari bat txapeldun ez izatea nahi izan du. Nik uste, enpresa berri horren sortzaile den Nalda, pilotarien izenak ematearekin prezipitatu egin dela. Honek bi urte-urtet' erdi lehenagotik bere enpresara doazen pilotarien izenak eman ditu. Izenik eman izan ez balu seguruenik bi anaiak jokatzen izango genituzke. Aspek jarrera logikoena hartu du.

- Finalerdietarako sailkatzekeo zenbat partida irabazi beharko dituzue?

Gutxienez lau partidua irabazi beharko ditugu finalerdietan seguru izateko.

Hirukin ere posible da sailkatzea, baina beti ere emaitzen arabera. Gainera, iaz baino aukera gutxiago ditugu finalerdietara joateko. Iaz ere sei bikote ginen taldean, baina txapelketa bateraturik ez zela eta, lau bikoteek geneukan erdi-finalera joateko aukera.

Aurten, talde bakoitzeko bi lehenak sailkatuko dira Asegarceko beste bi bikoteekin jokatzekeo.

- Nola ikusten duzu pilota-enpresa berrien sortzea? Ze ondorio ekar dezake?

Pilotariendako oso ona da enpresa gehiago egotea, kontratuak ez baitira jeitsiko. Gaur egun bi enpresendako goi mailako pilotariak ozta-ozta baditugu, pentsa bidean datorren hirugarren enpresa hau sortzen bada.



Aitor, iaz Aspeko binakako txapeldun izan zen Asier Olaizolarekin

Uste dut gaur egun ez dagoela merkaturik hiru enpresendako. Horrela jarraitzeko enpresaren bat desagertu egin beharko litzateke. Honek guztiak profesionaletako maila jeistea ekarriko du, baina horrela dago merkatua. Bestalde gerta liteke pilotari gazte asko igotzea eta gero denendako patidarik ez izatea. Pilotari gazteak partidak jokatu behar ditu, eta hilabetean behin jokatzeak ez dio batere mesederik egingo.

IRAMA

ELEKTRIZITATEA

Instalazioak eta mantentze lanak

24 orduko zerbitzua
tel. mugikorra: 619692336
tel: 789057-768025

ANA LIBURUDENDA

Zatoz beste dimentsio batetara!

Tel. 768078

Oskarbi Gipuzkoako Klub arteko finalean

Oskarbi, Gipuzkoako klub arteko txapelketako hirugarren postua eskuratu du azkenean. Finalerdietarako pasea lortu ondoren, Zumarragaren aurka jardun zuten. Elgetarrek etxean jokatu arren ezin izan zuten irabazi. Gauzak honela, Aretxabaletako taldearen aurka hirugarreneta laugarren postu erabakigarriarengatik jardun eta gero, hirugarren sailkatu dira. Lehendabiziko partidana Ubera II eta Iñurrategik 22-6 irabazi zuten Elgetan, Errasti eta Laskurainen aurrean. Joaneko partidana ere elgetarrak izan ziren garaile 22-16. Postu honek, Euskal Ligan jokatzeko eskubidea emango dio Oskarbiri.

KIROLGIk saria Oskarbiko bikoteari

Gipuzkoan kirol zaletu edo amateurren alde lan egiten duen KIROLGI FUNDAZIOAK urtero egiten duen sari banaketan Oskarbiko bikote bat saritu nahi izan ditu. Beste hainbat kirolariren artean, Euskadiko Afizionatu mailako Binakako Txapeldun diren Ubera I eta Iñurrategik, plaka oroigarria jaso zuten. Ekitaldia Donostiako Kursaal Jauregian izan zen. Lehenago PRODEGI deitua zen elkarte honek, gaur egun profesionalak ez diren eta ez oso ezagunak diren kirol elkarte eta banakako kirolariren artean dirulaguntzak banatzen ditu.

Deba arroko txapelketa

Debako bailaran urtero jokatzen den txapelketa aurki hasiko da. Txapelketa hau hainbat kategoriatan jokatzen den txapelketa dugu. Txapelketa zenbait hilabetetan luzatuko da eta Elgetako pilotari gazte eta afizionatuek inguruko herrietako hainbat frontoitan jardungo dute.

Futbito a uste baino beranduago hasiko zaigu

Mutiletan 7-9 talde izango dira eta nesketan arazoak daude bi talde osatzeko

Atzerapen piskatekin bada ere otsailaren lehenengo astean hastekotan da aurtengo futbito txapelketa. Antolatzaileak oraindik, aurreko urteetan parte hartu izan duten kanpoko zenbait talderen partehartzea ziurtatu nahirik dabilta. Momentuz bost taldek eman dute izena, hiru Elgetakoak diren bitartean beste biak kanpoko bi talde berri dira. Oraindik antolakuntza ia zko hiru talderekin hitzegiten ari da beraien partehartzea lotzeko.

Behin guztia lotuta taldekideekin bilera bat egin eta egutegiak banatuko dira. Antolatzaileek txapelketa otsailaren lehenengo astean edo bigarrean hasiko dela esan digute.

Nesketan berriz talde bakar batek eman du izena. Antolakuntzakoak beste talde bat ateratzeko ahaleginetan dabilta baina arazoak dituzte jendea aurkitzeko. Inork jokatze gogoia badauka, antolatzaileengana jotzea besterik ez dauka.

Gabonetako bigarren pilota jaialdia

Pilotaren etorkizuna ziurtatuta daukagula esan dezakegu abenduaren 31n Elgetako frontoian ikusi genuen pilota jaialdia eta gero. Gabonetako txapelketako finalak izan genituen bertan. Txikitxoetatik nagusitxoetararte finalak ikusteko aukera izan genituen. Sari banaketa ordurako Aspeko pilotariak diren Aitor Elkoro eta Aritz Berraondo etorri ziren. Haur guztiendako izan ziren sariak, ez zen galtzailerik izan. Ohiko sarietaz gain urtean pilotalekura gehien joaten diren haurrentzat ere sari bereziak banatu ziren besteak beste.



Janire Lazkano Berraondoren eskutik saria jasotzen.

Aizkoran egitea lanbide gogorra zen. Orain plazako kirol moduan ezagutzen dugu, gehienok

Kaixo! Oraingo honetan ere bagatoz gure aldizkariko orri hau betetzera.

Duela gutxi, ia gehienok jakingo duzuen bezela herriko gaztetxoenentzat Iparraldeko herri Kirol "parke" bat egon zen. Bertan aukera ugari izan zituzten inguratu zirenek: lur gainean arraunean egiteko, txingak eskuetan hartu eta mugitzeko, trontzan egiteko, fardo jazotzen ibiltzeko,.... Gu horrena oroitzuz gai interesgarria iruditu zaigu lerro hauek idazteko. Baina Euskal Herriko Kirolei buruz gauza asko eta asko esan daitezke eta gure erabakia aizkolaritzaren gainean zertxobait kontatzea izan da.

Beraz, hemen doaz guri interesgarriak iruditzen zaizkigun zenbait datu.

Jatorria

Aizkora jokoak basalanean du jatorria. Euskal Herriko basoak eraikuntzarako egurra ateratzeko eta ikatza egiteko zuhaitzak botatzen ziren garaietan, kuadriletako mutilek elkarren arteko norgehiagokak jokatzeko

zituzten (nork moztuko edo botako lehenengo zuhaitza).

Gainontzeko

beste herri kirolen antzerira, lanbide izan eta apustuetatik etorri den kirola da.

Jakin badakigu,

lehenengo gazteak basora lanera joaten zirela, hala

eta ere, denborarekin, apustuak egiten hasi ziren.

Gaur egun txapelketa ofizialak jokatzeko dira, nahiz eta apustuen ohitura ez den erabat galdu.

Helburua

Aurkakoak baino denbora laburragoan enborrak mozte da.

Nola, non eta zer materialekin jolasten da?

Euskal Herrian enborrak etzanda jartzen dira, aizkolariek hankak erdi itxita edukitzen dituzte eta hanken erdian jotzen diote enborrari, aizkoraz. Lehenengo alde batetik eta gero bestetik erdibitu arte.

Hasiera batean gazteak basora lanera joaterakoan enborrak mozten zituzten eguna biz-

korrago pasatzeko. Eta ondoren herriko plazetan edo frontoietan jendeak ikusi eta beriek ere apustuak egiteko. Denborarekin aizkolariek horiei lan edo kirol hori egiteagatik ordaindu egiten diete.

Kirol hau praktikatzeko beharrezkoak diren material batzuk daude. Adb.:

Aizkolaritzan gutxienez hiru edo lau aizkora behar dituzte egurra mozteko eta aizkolariek bakoitzak sei-zortzi enbor bitarte mozten dituzte, hori bai kopurua aldatzen da, segun enborra nongoa den eta ze tamaina duen.

Beste datu garrantzitsu bat, aizkolarien jasteko era da, dena txurizjoaten dira.

DBH 4. maila



Aizkolaritzak jendetza handia mugitzen du eta diru asko jokatzeko da plazetan.

ELKORO TORLOJU LANTEGIA

DEKOLETAIA ETA
FIJAZIO SISTEMAK

Lerraondokua 2/g 20690 Elgeta
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 768200 - 768125 Faxa: 768203

IBAIBA-
RRIAGA
GARRAIOAK

Tel: 768072
Salbador zeharbidea 2
ELGETA

E
HARATEGIA
A
S
T
I

San Roke 6
tel: 768168.

Dendetan, San Blasak aukeran: Gozogintza dietetiko edo tradiziozkoa

San Blas eguna datorrela eta, Elgetan bakoitzak bere etxean egiteaz aparte baditugu bi leku San Blasa egin eta saltzen dutenak. Alde batetik, Altube baserrian betiko era tradizionalan egiten dute, eta bestetik, Galgorri gozogintza dietetiko eta tradizionalan aritzen dena. Biekin egon ondoren honako errezetak aurkeztu dizkigute:


GALGORRI

Hasieran gozogintza dietetikoari ekin zioten berezitasun gisa eta gerora tradizionalari ere eutsi diote. Ekoizpenaren %80a inguru dietetiko da eta gainontzekoa tradizionala. Adibidez, diabetesa pairatzen dutenendako, zeliakoak (glutena jasan ezin dutenak) direnendako eta beste hainbatendako jateko moduko gozoak egiten dituzte.

Osagaiak:

Kilo bat huruna
160gr. margarina begetala
400gr. azukarra
250zl. arraultzak
Legamia edo altxagarria koilarakadaxo bat.
Anis esentzia tantaka pare bat.

Nola prestatu: Hasteko arraultzak irabiatu, honi azukarra eta gurina nahastu. Honela, ore biguin bat lortuko dugu. Azkenik huruna altxagarriarekin aurrez nahastuta izanik, guztia nahastu eta anis tanta pare bat gehitu. Ore honi itxura eman eta bukatzeko labean sartu. Labetik atera aurretik azukar glassa eta arraultza zuringoa altxatuta izan. Azkenengo pausua pintzel batekin San blasa beroa dagoela gainetik zabaltzea izango da, bere berotasunean lehortzeko.



ALTUBE BASERRIA

Beti ezagutu dugun erara egiten dute San Blasa Altuben, era tradizionalan. Ogia egin ondoren labearen berotasunean egiten dituzte.

Osagaiak: (hamabi bat opil egiteko neurriak)

Bi dozena arraultza
3kg. huruna
250gr. gurina
250gr. koipea
Kilo bat azukarra
3 sobretxo altxagarria
edo legamia

Nola prestatu: Mahai baten gainean hurunarekin sumendi bat egin eta bertara arraultzak, azukarra, anisa, gurina eta koipea urtuta gehitu. Poliki-poliki eragin eta mahaian pegatzen ez denean, txoko batean laga ordu bete inguru. Labera sartu eta ordu laurden edo hogeit hamar minutu eduki. Aurrez erabilitako arraultzei zuringoa kendu eta ontzi batean libra bat azukarrekin bainu marian ipini urtu artean. Noizean behin eragin. Azkenean, ontzian daukaguna irabiagailuarekin altxatu eta opilak ateratakoan gainetik eman beroarekin lehortzeko.

ZABALA

Lasao 6 Elgeta
Tel: 768075-6 768225
Faxa: 768201



HERMANOS S.A.

EHIZARAKO
ESKOPETA EGILEA



Bat nahikua ez eta...

Bat nahikua ez eta bialdu doskue bigarren bizkaitarra gipuzkuarron araz.uak konpontzera. Egixa esan lehenenguk be, euskaraz ez dakixen Barakaldoko kaxka gorriak, momentura arte, ez dau gauza haundirik konpondu. Izan be izugarriak ei ziran, eta ei dira, horrek konpondu biharrekuok.

Bestiak, euskaraz ondotox egitten daben negoziatzaille trebiak, nahikua lan eukiko dau bere artalde nahastuan ordena pixkat jartzen. Izan be, batagaittik edo bestiagaittik nahikua nahastuta dauka hori artaldioi.

Batari, kaxka gorrixari, diru dexente emoten dotsau Gipuzkuako dirutik, gure mutillei ahalik eta etekiñ haundixena etara deixien. Nunbait bertako mutilek etekin gutxitxo dauke eta inun diran leku danetatik ekarri izan izan dittue mutil barrixak Espaiñian hain lotsagarri ibilli ez gaittezen.

Bestiak, obispuak, lehen beste kobrauta eta inor titxatu barik

egin biharko dau bere lana. Eta oso kontuz ibilli biharko da esaten dabenaikin, hemen danok gagoz eta esango dabenairen zaiñ. Eta danok esan dotenian dan-danok esan gura dot, bai batekuak eta bai bestekuak.

Bata, erdelduna, denboraldi batian etekiñ onik etaratzen ez badau, bialduko dabe hortik zihar eta ekarriko dabe barrixa gauzak konpontzeko.

Bestiak, euskaldunak, egin biharrekua ez da etekinetan neur-tzen. Eta ez dauka iñork hortik zihar bialduko daben beldurrik.

Honek danok esan eta gero esan biharra daukat bixak dirala nere gustokuak, bizkaitxarrak gustatzen jatazela lehen be erakutsi izan dot. Eta espero dot obispo barrixak, aurrekuak moduan, gauzak ganoraz egingo dittuala. Horretara, danok, sinisten dabenak eta sinisten ez dogunok hobeto ibilliko garelako. (Entrenatzaileak egin deixela edozer, gero eta gutxiau arduratzen nau eta hainbeste usteldu dan futbolak).

**Espero dot obispo barrixak,
aurrekuak moduan, gauzak
ganoraz egingo dittuala.**

Jabier Arantzeta



**KONTXI
ARRANDEGIA**
Salbador 5 Tel: 768009

SISTECO
erraminta makina

Juan Luis Berechinaga
Elgeta 20690 Pagatza Parke Ind. 2, B

**Hozkailuak eta
izozkailuak,
aire
girotua**



Salbador 21
Berraondokua 7
Tel eta faxa: 78 90 46

Zapatutan eta domeketan bertako babarrunak, saiheskia erreta.

tel: 768273

M^a
ESTHER
Tel: 76 81 67

Egin zaittez bazkide


Gure elkartian 100 elkartekide-tik gora gare, baiña ondiokan zu falta zara. Egin bazkide!!!!!!!!!!!!

Bazkide egiteko Elgetako liburutegira fatia besteik ez dakazu. Han hartuko dotsue zure datuak eta galderan bat badakazu erantzungo dotsugu.

Hau bazkidetza kanpainia otsaillan 12xan amaittuko dogu.

Bazkide zarieni batzar orokorrean egingo dotsuegu deiza otsaillan 18rako. Karta baten jasoko dozue berba egingo diran gaixak eta beste.

Zurekin bat gehixau!!!!!!!!!!!!





Plastikozko ontziak



Latak



brickak



...ZURU esku dago

"Buelbaka - Buelbaka Birziklatuz"

Datozen egunetan honelako 127 edukiontzi jarriko ditugu Deba Garaian zehar. Zure laguntzarekin ingurugiroa zaintzeko bide horretan urrats handia emango dugu.

Eta horrela, lehengai eta energia gutxiago beharko dugu, kutsadura eta zaborrak ere gutxitu egingo dira, eta jakina, zabortegeiak ere denbora luzegorako izango ditugu.



Gutxitu hondakinak, berriz erabili eta birzikla itzazu Guztion mesedetan izango da



DEBA GARAIKO MANKOMUNITATEA
MANCOMUNIDAD DEL ALTO DEBA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
LURRALDE ANTOLAMENDU,
ETXEBIZITZA ETA
INGURUGIRO SAILA
DEPARTAMENTO DE
ORDENACION DEL TERRITORIO,
VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Nekazaritza eta Ingurugiro Departamantua
Departamento de Agricultura y Medio Ambiente

ECOEMBES